hiruka

161. zenbakia
2020KO UDA

Jaiak, memorian konfinatuta

hiruka

HIRUKA kooperatiba elkartea

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO
e-posta: hiruka@hiruka.eus
Posta-kutxa: 171
Telefonoa: 944 911 337
Publizitatea: Maria Gorostiola
Erredakzioa: Unai Brea, Iker Rincon Moreno, Hodei Torres
Diseinua: Artefakto
Administrazioa: Ziortza Merino
Filmazioa eta Inprimategia: Comeco Gráfico
Lege-gordailua: BI-2022-2014
ISSN: 2386-98-95
Ale-kopurua: 5.000
CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak

Getxo · Leioa · Erandio Elizateko Udala · Berangoko Udala · Plentziako Udala · Gorlizko Udala · Urdulizko Udala · Barrikako Udala · Lemoizko Udala

Bizkaia foru aldundia diputación foral
Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.

Uribe Kostako **jaiak iruditan**

Jaiak gogoan
UDAKO ALE BEREZIA 3

Getxo 5
SAN ISIDRO JAIAK Andra Mari
AIXERROTAKO PAELLA-LEHIAKETA
SANTA ANA JAIAK Areeta
SAN INAZIO JAIAK Algorta
ITZUBALTZETAKO JAIAK
SAN LORENTZO AZOKA Algorta
PORTU ZAHARREKO JAIAK

Leioa 15
LAMIAKOKO JAIAK
TXORIERRIKO JAIAK
SAN JUAN JAIAK
PINUETAKO JAIAK
SANTIMAMIKO JAIAK
SAN BARTOLOME JAIAK
ANDRA MARI JAIAK Ondiz
UDONDOKO JAIAK

Erandio 23
FAOETAKO JAIAK
CORPUS JAIAK Erandiogoikoa
SAN TRIFON JAIAK Arriaga
LUTXANAKO JAIAK
KRISTOBAL JAIAK Goierri
ASUAKO JAIAK
SAN LORENTZO JAIAK Astrabudua
ANDRAMARIAK Erandiogoikoa
SAN AGUSTIN JAIAK Altzaga
ENEKURIKO JAIAK

Sopela 31
SAN JUAN JAIAK
KARMEN JAIAK Larrabasterra
SANTA MARINA EGUNA

Berango 37
SANTA ANA JAIAK
SANTO DOMINGO JAIAK
BAKAILAO JAI HERRIKOIA

Gorliz 43
SANTIAGO JAIAK
ANDRAMARIAK
SAN LORENTZO EGUNA
UREZARANTZAKO JAIAK

Plentzia 49
SAN KRISTOBAL JAIAK
KARMEN JAIAK
MADALENAK
SARATXAGAKO JAIAK
SAN INAZIO JAIAK
SAN ANTOLIN JAIAK

Urduliz 55
RABU-LEHIAKETA
SANTA MARIÑE EGUNA
ANDRAMARIAK

Lemoiz 61
KARMEN JAIAK Armintza
ANDRAMARIAK Urizar

Barrika 67
SAN BLAS EGUNA
SAN JUAN JAIAK

QR kode hau eskaneatuz gero, azken urteetan HIRUKAn argitaratu dugun jaien gaineko informazio guzti-guztia ikusi ahal izango duzu zeure mugikorrean.

Uda huts honetan, jaiak gogoan

Bihar goizean ohetik altxatu eta gauean elurte batek kaleak zuriz estali dituela ikusiko bagenu, beharbada ez ginateke asko harrituko, bestela ere zeharo arraroa izaten ari baita aurtengo uda. Momentuz, eta elurrik ezean, hona hemen ezohiko maluta hau. Uztail hasierako zenbakian jarri ohi gara jaiei begira, herriz herriko egitarauak zuenganatzeko. Oraingoan, ordea, hilabete amaieran egin dugu ariketa, abuztuan goza dezazuen, eta ezer iragarri beharrean iazko jaiak ekarri ditugu gogora. Hala, aurreko urteetako udako festetan hartutako irudi onenen bilduma topatuko duzue aldizkari honetan. Oharra: ez ditugu ezkerreko orrialdean ageri den zerrendako festa denen irudiak, gu ere ez baikara leku guztietara ailegatzen.

Horrez gain, eta betiko legez, egunero-egunero internet bidez emango dizuegu garai latz hauetan Uribe Kostan jazotzen denaren berri. Momentuz, eta ez dakigu noiz arte, orain denen ahoan dagoen telelanaren bidez. Izan ere, birus batek egun batetik bestera gure bizimoduak hankaz gora ipini zituenetik kolokan daude gauza asko. Askoren osasuna eta bizitza bera, hasteko. Doakie horiei eta bidean hurbileko norbait galdu dutenei gure elkartasunik zintzoena, lehenik eta behin.

Hedabideontzat ere ez dira garai gozoak. Ondorioak beste batzuentzat bezain berehalakoak izan ez badira ere, COVID-19aren pandemiak euskarazko toki-komunikabideei ekarriko digun kaltea ez da txikia izango: abuztura bitartean sektoreak 2,5 milioi euroko galerak izango dituela aurreikusi dugu.

Uribekostar askoren ekarpen txikiak dira gure sostenguaren oinarrietako bat. HIRUKAlagunena eta, noski, iragarleena. Ekarpen horietako asko, bigarren multzokoak batez ere, kolokan daude orain, gizartearen eta ekonomiaren arlo askotan paralisia eragin duen osasun-larrialdiaren erruz. Honenbestez, zure laguntza materiala ere behar dugu aurrera jarraitzeko. Inoiz bainoago, zu zara giltza! ◂

NIKE

Getxo

Lerro hauek idazten gabiltzala egun batzuk falta dira oraindino, baina iragarritakoa betez gero historiako Paella Lehiaketarik atipikoena egin berri dela banatuko dugu esku artean duzun aldizkari hau: online eta *streaming* bidez, Itxas Argiak banatutako zapia jantzita eroateko baldintzagaz. Uda arraro hau deskribatzeko balio duen hamaika adibideetako bat besterik ez da hori. Ondoko orrietan Getxon egiten diren jai ugarietako erretratuak aurkituko dituzu, tartean aurreko batean Paelletan Aixerrotako landan hartutako batzuk. Baita saninazioetakoak ere, eta Portu Zaharrekoak, eta Andra Mariko sanisidroetakoak, eta Itzubaltzetakoak... Bitartean, 2020an, bizi-bizi dago Udaleko talde politikoen arteko eztabaida, jaien (edo jai ezaren) kudeaketa dela eta ez dela. Jai-batzordeek ere kritika egin diote udal-gobernuari, euren proposamenak gauzatzeko aukerarik eman ez diela eta.

PNV

GETXO
ADOS

PAUSE

EROSKI

CANTABRICO

San Isidroka

MUGA BARIK!

No hay Navidad,
Sin mesura laboral

• Tierra de AVENTURA •

Seis hectáreas de pura diversión.

Un Parque Multiaventura en Pedrosa de Valdeporres
donde mayores y pequeños sacrán su lado más aventurero.

• ABENTURARAKO Lurraldea •

Dibertsio hutsezko sei hektarea.

Abentura Anitzeko Parkea Pedrosa de Valdeporresen, helduek zein
umeek euren abenturazaleena erakusteko.

www.valterria.com
Calle de la Serna s/n.
Pedrosa de Valdeporres. Burgos

T. 947 640 161
info@valterria.com

LasMerindades
Provincia Burgos

Leioa

Udan zehar jai asko dago Leioan, baina zalantza barik sanjoanak dira ospetsuenak eta jendetsuenak. Aurten, tamalez, balkoietan piztutako linternek, mugikorrek eta txiskeroek bete dute ekainaren 23ko suaren rola. Eta egunero, iazko jaien irudi onenakaz osatutako bideoez gozatzeko aukera izan dute leioaztarrek. Seguru gaude horietako askoren antzekoak topatuko dituzuela ondorengo orrialdeetan. Hala ere, esan beharra dago auzoetan zabaldu zela jai birtualen bidea: maiatzaren amaieran, hiru eguneko egitarau oparoa prestatu zuen Lamiakoko jai-batzordeak, sare sozialak, internet, bideoa eta irudimena baliatuz. Handik gutxira, ekainaren 6an, Txorierrik hartu zion erreleboa. Leioako Udalak iragarri zuenez, festetarako izan behar zuen dirua COVID-19ak kaltetutakoei laguntzeko erabiliko dute.

10
9
10

Gara

ELEXALDE ETORBIDEA
LEIOAKO
TXOSNAK
%40
EUSKAL
ETXERA

KORA

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA
NO A LA VIOLENCIA CONTRA LAS MU

Coca-Cola

ETXERA
PRESO ETA IHESLARIAK
ETXERA ETXERA ETXERA ETXERA

Erandio

Normalean jai gehien duen Uribe Kostako udalerria da Erandio, baina koronabirusak kontuak berdindu ditu aurten: bat ere ez. Auzo batzuetan festak egiteko artean denbora luzea falta zen arren (Astrabuduan eta Altzagan, esaterako, abuztu erdian eta amaieran egiten dituzte, hurrenez hurren), maiatzeko lehenengo astean bagenekien festen egutegia zeharo hutsik egongo zela, jai-batzordeek asmatutako bide alternatiboak aparte utzita. Erandiogoikoan, berbarako, zer edo zer egin zuten Corpus Christiko jaietan, ekainean. Festetarako dirulaguntzak, berriz, batzordeoi eman beharrean pandemiak kaltetutakoei laguntzeko erabiliko zituela adierazi zuen Udalak. Jarraian, Erandioko auzo nagusietako jaietan aurreko urteetan egindako argazki onenez gozatu ahal izango duzue.

euskaraz
bizi
nahi dut
berbots

GOIHERRI

CHURRERIA SANTIA

KP
#KAIXO
DEFENDEM

Berbols
EUSKAL
PRESO ETA
IHESLARIAK

PROHIBIDO APARCAR
7727 ATO

40
BASERRI
MATXINADA
TXORIZO TA
ENTSALADA!
GAZTETXEA
NAHI, BEHAR ETA MAITE DUGULAKO
MATXINADAK
DEFENDATUKO DU!

IRRINTZI

URMENDI LANDETXEA

Gertutasunaren handitasuna

Lizarragabengoa (Nafarroa)
603 715 595
http://www.casaruralurmendi.es/

GUAIXE fundazioa
guaixe
beleixe 107.3 FM
gk DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA
www.guaixe.eus

UDALETXEA
ETXERA
Sopelako Jaiak
Sopela
SOPELANA
bizi bizirik
PENATXURI
zipiriñe
ERA!!
ANDER DEUNA
aitxu!
VUELO, LUEGO EXISTO

Sopela

Zalaparta ugari eragin du Sopelan jaiak ohiko moduan ezin egiteak. Berez San Pedro jaiak egitea tokatzen zen aste-akabuan dozenaka gaztek egindako elkarretaratze ez-ofizialek oihartzun handia izan zuten hedabideetan; bestetik, programazio alternatiboa lantzeko garaian Udalaren gehiegizko esku-hartzea salatu dute herri-mugimenduko hainbat elkartek, txosna-batzordean daudenek barne. Baina horiek aurtengo kontuak dira, eta oraingoan hona ekarri gaituena iragan hurbileko jaiak gogoratzea da. Hona hemen, honenbestez, azken urteetako sanpedroetako eta karmenetako irudien bilduma eder bat, lehenbailehen berriro horrelakoak bizi izango ditugulako itxaropenez.

errejetera buelta
HAUSTURA ALA EZER EZ

14

PLAZA
BETLEM

Do women have to be naked to get into the Met. Museum?
Less than 5% of the artists in the Modern Art sections are women, but 85% of the nudes are female.
GUERRILLA GIRLS

11 ERASO
12 ERANTZUN!

ADA!

ADA!
POR UN

Berango

Santa Ana eta Santo Domingo, Berangoko jai nagusi bien arteko datetan argitaratuko da HIRUKA hau. Maiatzetik dakigu aurten ez direla egingo, eta haien ordezko ekitaldirik ez du antolatu Udalak. Pil-pilean egindako bakailao-jaia (2007an utzi zion lehiaketa izateari), Santo Domingoko festen ondoren egin ohi dena, bertan behera geratu da era berean. Horren irudi batzuk bildu ditugu orrialdeotan, baina batez ere santodomingoetakoak eskainiko dizkizuegu, pandemiaren aurreko garaiaren oroigarri modura.

GEAK

NAGUSIEN ETXEA

Gorliz

Orain dela egun gutxi adierazi du Gorlizko Udalak ofizialki esan barik edonork zekiena: bertan behera geratu dira aurtengo jai denak. Izan ere, askoz lehenagotik ezaguna zen udarako kultur programazio alternatiboa. Herriko festa nagusiak, hau da, santiagoak hasiko ziratekeen datarako astebete baino gutxiago falta zela egin zuen iragarpena Udalak. Hain zuzen, jai horietan egindakoak dira hemen aurkituko dituzun argazki gehienak, baina ez bakarrak, andramarietako paella-lehiaketakoak ere badaude eta. Hori behintzat, talde txikietan eta norbere etxean dagoela bada ere, aurten errepikatzeko modukoa den gauzetako bat da. On dagizuela!

1988
UDALETXEA

Ardi
Beltzak

OLAXKA

URRIS

Gorliz

Plentzia

Uda, eta batik bat uztaila, jaiz beteta egoten da Plentzian, pandemia batek eragozten ez duen urteetan. Aurtengoari dagokionez, bertako Udalak eta jai-batzordeek aspaldi hartu zuten 2020an jairik ez egiteko erabakia: maiatzaren amaieran eman zuten horren berri. Guk hemen zuentzat bildutako argazki gehienak, berriz, sanantolinetan egindakoak dira, alegia, herriko festa garrantzitsuenetan. Edo, behintzat, jendetsuenetan. Begira egiezue lasai, kutsatuko zaizuen gauza bakarra parrandarako gogoa da eta.

Urduliz

Ez Santa Mariñeko ospakizunik, ez rabu-lehiaketarik, ez abuztuko nekazaritza-azokarik, eta ez iraileko Andra Mari jairik ere. Urteroko jai-programazioa ia osorik bertan behera geratu da Urdulizen. «Ia» diogu, Santa Mariñe egunean egon ohi den ekitaldietako bat behintzat mantendu egin baita zoritxarreko 2020 honetan: azken urtean ama izan diren herriko emakumeen omenezko aurreskua. Hori bai, herriaren erdian egin zuten omenaldia, Antsonekoa plazan, eta ez haitzen magalean. Bien bitartean, hurrengo hegaldia egiteko aukeraren zain geratu da Kakarraldoa.

URDULIZ
2016

Lemoiz

Uribe Kostako udalerrietan populazio txikienekoa izan arren, urtero jende-olde handia erakartzen duenetakoa izaten da Lemoiz, Armintzako Karmengo jaietan egiten den Txapel Reggae festibalari esker. Egun horietan sortzen den giro bikainaz gozatzeko aukera ostu digu COVID-19ak, eta honenbestez, aurreko edizioetako argazkiei begira geratzea eta herriaren barruan dozenaka kanpin-dendagaz «eraikitako» beste herri bitxi horretaz gogoratzea beste irtenbiderik ez dugu. Dantzatu beharreko erritmoa, aurtengoan, birus batek ezarri digu.

IRRESPETUA
TXAPEL REGGAE

URIBE KOSTA
ADOS
TXAPEL REGGAE

GURE ISKU
DAGO
ONGI ETORRI!

BUSH

PROHIBIDO
APARCAR

Barrika

San Juan bezperako su guztiak amatatu ditu COVIDak. Hori bereziki igarri dute Barrikan, han ez baitira sanjuanetan beste barik sutea egiteaz konformatzen. Hura pizteko, inguruan bizi ziren neanderthalek orain dela ehun mila urte baino gehiago erabiltzen zuten metodo berdina erabiltzen dute, harria harriaren kontra. Oraingoan, haatik, ez dugu iraganera hain salto handia egingo; nostalgia-ariketa honetarako, nahikoa izango da azken urteetako San Juan jaiei begiratzea, benetako suaren magiaren zain gauden bitartean.

EUSKADIKO NEKAZALTURISMO ETA LANDA-ETXEAK

nekatur

Nekazalturismo Elkartea • Euskadiko nekazalturismo eta landa-etxeak
Asociación Nekazalturismoa • Agroturismos y Casas Rurales de Euskadi

Nekaturrek eskeintzen dizu:

- Erreserben doako kudeaketa (logelak, apartamenduak, etxe osoak)
- Opari bonu eta txekeen salmenta
- Eskaintza eta Deskontuak Euskadiko erakunde turistikoetan
- Turismo edo/eta lan bidaietarako ostatuak
- Enpresa bileretarako edo opari bezala
- **Eta askoz gehiago...**

EUSKADI

943 32 70 90

www.nekatur.net

UDAKO PROGRAMAZIOA
GETXO 2020

Uztailak 30 (osteguna)
Romo Kultur Etxea - 20:00 - 5 €

Kontzertua:
THE OLD TIMEY STRING BAND
+ Lorelei Green & Agus Zubiaga

Abuztuak 10 (astelehena)
Muxikebarri - 22:00 - Sarrera gonbidapenez
(Kultur Etxeetan jaso beharrekoak)

San Lorentzoko kontzertua:
BIOTZ ALAI ABESBATZA

Abuztuak 14 (ostirala)
Muxikebarri - 20:00 - 5 €

Kontzertua:
ITXASO & JOSÉ LUIS CANAL

Irailak 2 (asteazkena)
Muxikebarri - 19:30- Sarrera gonbidapenez
(Kultur Etxeetan jaso beharrekoak)

BERTSO JAIALDI MUNDIALA

Irailak 5 (larunbata)
Romo Kultur Etxea - 19:30 - 5 €

GETXOKO BALKOIAK

Irailak 11-13
Muxikebarri - 19:00 - 3 € (abonamendua: 7 €)

34. HABANERA JAIALDIA
Irailak 11: Xató (Bartzelona)
Irailak 12: Boira (Lleida)
Irailak 13: Zozoak - Andrés Isasi abesbatza

Irailak 17 (osteguna)
Muxikebarri - 18:30- Sarrerak: www.bertsolzale.eus

UDABARRIA BERTSOTAN 2020:
BIZKAIKO BERTSOLARI TXAPELKETA

Getxo bizi ezazu

Getxo KULTUR ETXEA bizi ezazu

Salmenta / Venta:
- tickets.kutxabank.es
- Algortako Kultur Etxea
- Romo Kultur Etxea - RKE
- https://ticket.kutxabank.es/aulacultura/public/janto